



**IRAGARKIA:** 2026ko martxoaren 18a(e)an Tokiko Gobernu Batzarrak ospatutako bilkuran hartutako akordioa.

**ANUNCIO:** Acuerdo adoptado por Junta de Gobierno Local en sesión celebrada el 18 de marzo de 2026.

**Gaia:** 2026ko Sanmiel jaiak iragartzeko kartela aukeratzeko lehiaketaren oinarri arauak.

**Asunto:** Concurso del cartel anunciador de las fiestas de San Miguel 2026.

### Aurrekariak

Urnietako Udalak urtero antolatzen du Urnietako San Migel jaiak iragartzeko kartelaren lehiaketa. Horretarako, lehiaketa hori arautuko duten oinarriak onartu behar dira.

### Araudi aplikagarria

Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 legearen 17. artikuluko 1.20 puntuaren arabera, Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea Urnietako Udalaren eskumena da.

38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa, hamargarren xedapen gehigarrian: hezkuntza-, kultura-, zientzia- edo beste edozein motatako sariei buruz dioena beteko da.

4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa.

### ERABAKIA

1.- "URNIETA, SANMIEL JAIK 2026" kartela hautatzeko lehiaketaren oinarriak onartzea.

2.- Lehiaketa hori finantzatzeko 500,00 € erabiltzea, Urnietako Udalaren 2026ko ekitaldiko aurrekontuko 1 0410.226.338.00.07 2026 (3408) partidaren kargura.

3.- Erabakiaren berri Sustapen eta Kontuhartzaitza sailei helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan

### Erabaki honen kontra egiteko moduak

Administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA aurkez

### Antecedentes

El Ayuntamiento de Urnieta organiza todos los años el concurso del cartel anunciador de las fiestas de San Miguel de Urnieta. Para ello es necesario aprobar las bases que regirán dicho concurso.

### Normativa aplicable

De acuerdo con el punto 1.20 del artículo 17 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, es competencia del Ayuntamiento de Urnieta la ordenación y promoción de la cultura y de las actividades culturales.

Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en su disposición adicional décima: se estará a lo dispuesto en materia de premios en los ámbitos educativo, cultural, científico o de cualquier otro tipo.

LEY 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

### ACUERDO

1.- Aprobar las bases del concurso para la selección del cartel "URNIETA, SANMIEL JAIK 2026".

2.- Destinar 500,00 € para la financiación de dicho concurso con cargo a la partida 1 0410.226.338.00.07 2026 (3408) del presupuesto del ejercicio 2026 del Ayuntamiento de Urnieta

3.- Dar traslado del acuerdo a los Departamentos de Promoción e Intervención a los efectos oportunos.

### Modo de oponerse a esta resolución

Contra el citado acto expreso, que es definitivo en vía administrativa, podrá Vd. interponer en el plazo de DOS



Urnieta  
udala

Espte zk nº exppte:  
**2026SORO0003**

dezakezu Administrazioarekiko Auzien Jurisdikziotik dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegi egokian BI HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Herri Administrazioen Araubide Juridiko Arruntaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikularekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari HILABETEKO EPEAN, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Urnieta, 2026ko martxoaren 25a.

Idoia Arévalo Benito, Idazkaria.

MESES, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo que corresponda de la Jurisdicción Contencioso Administrativa, a tenor de lo establecido en los Arts. 8 y 46 de la Ley 29.1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con el Art. 114 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante, con carácter potestativo y previo al Recurso Contencioso Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se le notifica, podrá Vd., interponer RECURSO DE REPOSICION, ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de UN MES que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Urnieta, 25 de marzo de 2026.

Idoia Arévalo Benito, Secretaria.

ESKU56cab9bd-aa2c-4a11-b039-c7700164f3ff



Urnietako  
udala

Espte zk n° exppte:  
2026SORO0003

**2026KO SANMIEL JAIK IRAGARTZEKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETAREN OINARRI  
ARAUAK.**  
**BASES DEL CONCURSO PARA LA ELECCION DEL CARTEL ANUNCIADOR DE LAS FIESTAS DE  
SAN MIGUEL 2026**

1. Kartel bakarra hautatuko da Urnietako Sanmiel jaiak iragartzeko.
1. Se seleccionará un único cartel anunciando las fiestas de San Miguel de Urnieta.
2. Hamasei urtetik gorakoek edukiko dute lehiaketa honetan parte hartzeko aukera, eta partaide bakoitzak, gehienez, 3 obra aurkez ditzake.
2. Podrán participar en este concurso las personas mayores de 16 años y cada participante podrá presentar un máximo de 3 obras.
3. Erabiliko den teknika librea izango da: argazkia, pintura, marrazkia, collagea, etab. eta ez dira onartuko Adimen Artifizialak partzialki edo osorik sortutako obrak.
3. La técnica a emplear será libre: fotografía, pintura, dibujo, collage, etc., y no creadas íntegra ni exclusivamente mediante inteligencia artificial.
4. Lan horiek, nahitaez, originalak eta argitaratu gabeak izan beharko dute, ideiarri edo edukiari dagokionez, jendeari aurkezteko modukoak eta beste ezein lehiaketatan saritu gabeak. Plagioa edo kopia egon daitekeelako susmoa izanez gero, Epaimahaiak erabakiko du proposamena onartu edo baztertu, eta bere erabakia apelaezina izango da.
4. Dichas obras deberán ser necesariamente originales e inéditas en cuanto a su idea o contenido, presentables al público y no premiadas en ningún otro concurso. En caso de sospecha de plagio o copia, el Tribunal decidirá si acepta o rechaza la propuesta y su decisión será inapelable.
5. Lehiakideak izango dira jabetza intelektualaren ondorioetarako aurkeztu dituzten obren erantzule, baita aurkez litekeen edozein erreklamazioren aurrean ere, irudi eskubidea barne.
5. Las/os concursantes serán responsables de las obras presentadas a efectos de propiedad intelectual y ante cualquier otra reclamación que pudiese presentarse incluida la correspondiente a derechos de imagen.
6. Kartel guztiek goiburua eraman behar dute inprimatua: "**URNIETA, 2026ko SANMIELAK**".
6. El cartel debe incluir el lema "**URNIETA, 2026ko SANMIELAK**".
7. Lana formatu digitalean aurkeztu beharko da (edozein dela ere originalaren modalitate artistikoa) eta USB memoria batean entregatuko da. Ondorengo formatua izan beharko du: 29,7 cm-ko zabalera x 42 cm-ko altuera, 300 ppp.\*ko erresoluzioan eta CMYK erako koloreak. Obra bakoitzeko formatu bat aurkeztuko da.
7. Deberán presentar la obra en formato digital (sea cual sea la modalidad artística del original) y se entregara en una memoria USB. Se deberá seguir el siguiente formato: 29,7 cm. ancho x 42 cm. de alto, con una resolución de 300 PPP\* y en modo color CMYK. Se presentará un formato por cada obra.
8. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista eta inklusiboa bermatuko da. Pertsonen irudiak erabiltzen badira, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan islatuko dira. Gizon eta emakumeen irudiek ez dituzte genero-rol eta estereotipoak sustatuko. Gainera, sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-aukeraren arloan diferentzien tratamendu gutxiesgarria ekidingo da.
8. Se garantizará un uso no sexista e inclusivo de las imágenes y el idioma. Si se utilizan imágenes de personas, la presencia de mujeres y hombres se reflejará de forma equilibrada. Las imágenes de hombres y mujeres no fomentarán los roles y estereotipos de género. Además, se evitará el tratamiento peyorativo de las diferencias en materia de sexo, raza, edad, cultura u opción sexual.

ESKU56cab9bd-aa2c-4a11-b039-c7700164f3ff



9. Honetaz gain, partaideek otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, xedatutakoa bete beharko dute.

10. Entregatzeko epea 2026ko maiatzaren 29an bukatuko da (egun hori barne). Lanak Udaletxeko Bertan bulegoan tel.: 943008000 / [urnietakoudala@urnieta.eus](mailto:urnietakoudala@urnieta.eus)) aurkeztuko dira USB memoria batean, 07:30ak eta 14:30ak bitarte.

11. Kartela behar bezala estalita aurkeztuko da eta kanpoaldean 2026KO SANMIEL JAIK IRAGARTZEKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETA lema jarriko da.

12. Lanak parte-hartzaileak sinatu gabe aurkeztuko dira.

13. Aurkeztutako lan bakoitzarekin batera gutun-azal itxi bat entregatuko da. Kartazalaren barruan egilearen izen-deiturak, posta elektronikoa eta telefonoa adieraziko dira eta kanpoaldean kartelaren lema. Lan bakoitzeko gutun-azal bat aurkeztu beharko da.

14. Epaimahaiaren osiera honakoa izango da:

- Urnietako Udaleko kulturako zinegotzia (Lehendakaria)
- Kulturako teknikaria (Idazkaria)
- Jai batzordera bertaratutako taldeen ordezkariak (talde bakoitzeko ordezkari bana).

15. Baldin eta aurkeztutako lanen artean obraren batek oinarrietako baldintzak betetzen ez baditu, lehiaketatik kanporatzeko erabakia hartu ahalko du epaimahaiak.

16. Kartela 2026ko uztailaren 31a baino lehen hautatuko da Jai batzordean. Bozketan berdinketa gertatzu gero, beste bozketak jarraitzen badu, presidentziaren "kalitatezko botoaren" bidez erabakiko da eta ondoren Urnietako Udalak berretsi beharko du. Aukeratutako lan hauen artean aterako da irabazlea, bertaratutako taldeen ordezkarien botoek erabakita. Sanmiel jaien esanahia adierazteko gaitasuna, laugarren oinarrian adierazitako balioak eta diseinuaren originaltasuna hartuko dira kontuan.

17. Obrarik aurkezten ez bada edo

9. Asimismo, las personas participantes deberán cumplir lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

10. Fecha límite de entrega: 29 de mayo de 2026 (incluido este día). Se entregará en una memoria USB en la Oficina Bertan (tel.: 943008000 / [urnietakoudala@urnieta.eus](mailto:urnietakoudala@urnieta.eus)) del Ayuntamiento, de 07:30 a 14:30.

11. El cartel se entregará debidamente cubierto y se indicará en la parte externa el lema: CONCURSO PARA LA ELECCION DEL CARTEL ANUNCIADOR DE LAS FIESTAS DE SAN MIGUEL 2026.

12. Los trabajos se presentarán sin firma de la o el participante.

13. Acompañará a cada trabajo presentado un sobre cerrado donde se incluirán los datos de quien concursa: nombre y apellidos, dirección, correo electrónico y teléfono. Será necesario adjuntar un sobre por cada cartel presentado.

14. La composición del jurado será la siguiente:

- Concejala de cultura del Ayuntamiento de Urnieta (presidenta)
- Técnico/a de cultura (secretario/a)
- Representantes de los colectivos presentes en la comisión de fiestas (uno por cada grupo).

15. En el caso de que alguna de las obras presentadas no cumpla los requisitos de las bases, el jurado podrá tomar la decisión de excluirla del concurso.

16. La elección del cartel se realizará antes del día 31 de julio de 2026 en la Comisión de Fiestas. En caso de empate en la votación, se celebrará otra votación y si persiste el empate se decidirá mediante el "voto de calidad" de la presidencia y será refrendada por Urnietako Udala. La obra ganadora saldrá de entre los trabajos seleccionados, con los votos de los representantes de los colectivos presentes. Se valorará la capacidad para transmitir el significado de las fiestas de San Miguel, los valores señalados en la base cuarta y el carácter original del diseño.

17. En caso de que no se presenten obras o las



aurkeztutakoek oinarrietako baldintzak betetzen ez badituzte, Udalak kartela edozein artista edo inprintari zuzenean enkargatzeko aukera izango du.

18. Sari bakarra 500 eurokoa izango da. Saria Urnietako Udaleko 1 0410.226.338.00.07 2026 (3408) aurrekontu-partidaren kargura ordainduko dira.

19. Urnietako Udalak saritutako kartelaren erabilera eta jabetza eskubide guztiak izango ditu. Hau da, lana osatzen duten elementu desberdin guztiena, bai denak batera edo banaka, eta horien manipulazioarena iragarki-euskarrietara egokitzeko.

20. Irabazleak kartelaren neurriak egokitu beharko ditu, irudia 2026ko Sanmiel jaien jai-programaren azalean erabiliko delako. Azaleko neurriak 210x210 mm-koak izango dira.

21. Irabazleak uko egingo die egungo legediak egileari onartutako eskubide guztiei Urnietako Udaletxearen alde, legediak ezarritako ukaezinak salbuetsita, beti ere. Lehiakideak izango dira erantzule saritutako lanaren gain hirugarrengoen aurkez ditzaketen edonolako erreklamazioen aurrean, hala nola, originaltasunari, antzekotasunari, kopiari, eta abar dagozkienak.

22. Urnietako Udalak aurkeztzen diren lan guztiak erreproduzitzeko eta argitaratzeko eskubidea izango du, betiere egilearen izen-abizenak adieraziz. Lehiakideek uko egingo diote irudi lehiaketaren antolakuntzari eskubideen erreklamazio orori.

23. Beharrezkoa da 2026ko urriaren 09a baino lehen USB memoria jasotzea, data horretarako jaso ezean Urnietako Udalaren eskuetara pasatuko dira eta suntsitzeko eskubidea izango du. Antolakuntzak ez du bere gain hartzen gerta dakiekeen edonolako kalteren erantzukizuna.

24. Erabakia apelaezina izango da eta komunikabide lokalen bitartez emango da ezagutaraztera.

presentadas no cumplan los requisitos de las bases, el Ayuntamiento podrá encargar directamente el cartel a cualquier artista o imprenta.

18. Se establece un único premio de 500 euros. El premio se abonará con cargo a la partida presupuestaria 1 0410.226.338.00.07 2026 (3408) del Ayuntamiento de Urnieta.

19. El Ayuntamiento de Urnieta se reservan todos los derechos de propiedad material y uso del cartel premiado y de los distintos elementos que lo conformen, juntos o por separado, así como su manipulación para adecuarlo en los diferentes soportes publicitarios.

20. La persona ganadora deberá adaptar las medidas del cartel porque la imagen será utilizada en la portada del folleto de fiestas de San Miguel 2026. Las medidas de la portada serán 210x210mm.

21. La persona ganadora renuncia a todos los derechos de autor reconocidos por la legislación vigente de la propiedad intelectual, en favor del Ayuntamiento de Urnieta, salvo aquellos que sean irrenunciables por la propia legislación. Las personas que concursan se harán totalmente responsables frente a las reclamaciones que pudieran surgir de cualquier naturaleza presentadas por terceros relativos a originalidad, parecidos, copias, etc. ..., del trabajo ganador.

22. El Ayuntamiento de Urnieta se reserva el derecho a reproducir y publicar la totalidad de obras presentadas, siempre indicando el nombre y apellidos de la persona autora. Las/os concursantes renuncian a toda reclamación a la organización del concurso por derechos de imagen.

23. Las memorias USB deberán ser recogidas antes del 09 de octubre de 2026; pasando a poder del Ayuntamiento de Urnieta si no es recogida en las fechas señaladas, reservándose el Ayuntamiento de Urnieta el derecho a proceder a la destrucción. La Organización no se hace responsable de los daños que puedan sufrir durante el tiempo que estén en su poder.

24. El fallo será inapelable y se hará público a través de los medios de comunicación locales.



Urnietako  
udala

Espte zk nº expte:  
2026SORO0003

25. Lehiaketan partaide izateak, oinarri hauen osoko onarpena eskatzen du.

26. Hauek dira kontuan izan beharreko datak, beraz:

- **Maiatzak 29.** USB memoria azken eguna.
- **Uztailak 31 baino lehen.** Kartel irabazlearen hautaketa Jai batzordean.
- **Urriak 9.** Aurkeztu USB memoriak jasotzeko azken eguna.

25. La participación en el concurso supone la plena aceptación de estas bases.

26. Las fechas a tener en cuenta son las siguientes:

- **29 de mayo.** Fecha límite de entrega de la memoria USB.
- **Antes del 31 de julio.** Elección del cartel ganador en la comisión de fiestas.
- **9 de octubre.** Último día para recoger las memorias USB.



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2026SORO0003-JAKINARAZPENA tgb/NOTIFICACION jgl (Urnietako Udala)